

Urtarrilean eman genuen Interneteko Eukararen eta Euskal kulturaren Komunitatearen domeinua izango den .EUS domeinua eskatzeko gure asmoen berri. Orduan, 2008ko apirilean eratu genuen PuntuEus Elkarteak aurkeztu genuen. Baina jada bidean aurrera egin dugu eta emandako urratsen berri ematea da gaurko agerraldi honen helburua. Hain zuzen, **11 elkarteren eskutik jaio zen PuntuEus Elkarteak, dagoeneko 30 elkartek osatzen dutela adierazi nahi dugu.**

Emandako urratsak, .EUS domeinua eskatzeko egin behar dugun ibilbide luze batean kokatzen dira.

Lehen urratsa, .EUS domeinua eskatzeko duen subjektua eratzeko da. Hor kokatzen da PuntuEus Elkartearen sorreraren funtsa, PuntuEus Elkarteak izango baita, Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitatearen izenean ICANN nazioarteko erakundearen aurrean, .EUS domeinua eskatzeko duena.

Bigarren urratsa, eskaria aurkeztea da. Eskaria 'Applicant Guidebook' deritzan dokumentuan oinarritzen da. Dokumentu horretan, eskatzen zaizkigun azalpen guztiak eman behar ditugu: bideragarritasun ekonomikoa azalduko duen plan bat, bideragarritasun teknikorako beste bat eta, era berean, Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitateak .EUS proiektua babesten duela erakutsi behar dugu.

Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitatearen babesa adierazteko modu ezberdinak daude. Guk bi erabiliko ditugu: proiektuaren webgunearen bitartez jasotzen ditugun atxikimenduak eta PuntuEus Elkarteak bera.

Gaurdaino, **25.000 atxikimendu inguru bildu dira webgunean.** Lortu behar ditugun atxikimendu kopuruari dagokionean, ICANNek ez du ez minimorik ez maxemorik ezartzen. Baina oso garrantzitsua da ahalik eta atxikimendu gehien lortzea, eta bide batez, gaurko aukera hau atxikitzeke deia luzatzeko ere probestu nahi dugu.

PuntuEus Elkarteak ere Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitatearen babesa adierazteko beste modu bat da. ICANNen aurrean, ordezkariak lana egingo du eta, hortaz, ordezkariak hori ahalik eta esanguratsuen bilakatu behar dugu, PuntuEus Elkarteak zabalduz, sendoagoa eta anitzagoa bilakatu, bai kuantitatiboki eta baita kualitatiboki ere.

Azken hilabeteotan, urrats garrantzitsuak eman ditugu PuntuEus Elkartearen zabalpenaren bidean. 2008ko apirilaren 4an, 11 elkarte bildu ginen. Egun, guztira, 30 elkarte gara. Honakoa da, beraz, 5 hilabete beranduago, aurkeztu nahi dizuegun PuntuEus Elkarteak:

– EUSKALGINTZA

- Euskaltzaindia [www.euskaltzaindia.net]
- Euskal Idazleen Elkarteak [www.idazleak.org]
- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua [www.kontseilua.org]
- Euskal Konfederazioak [www.eke.org]
- Euskal Kantuzaleen Elkarteak – NA [www.kantuzale.net]
- Euskara Kultur Elkargoak [www.euskarakultur.org]
- Euskokultur Fundazioak [www.euskokultur.com]
- Gerediagak Elkarteak [www.gerediaga.com]
- EKE, Euskal Kultur Erakundeak [www.eke.org]
- Topaguneak [www.topagunea.org]
- Soziolinguistika Klusterrak [www.soziolinguistika.org]
- Euskal Herriko Gazteriaren Kontseilua [www.ehgk.org]

– HEZKUNTZA

- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa [www.ikastola.net]
- Ikastolen Elkartea – Partaide IEP [www.partaide.com]
- Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) [www.ehu.es]
- Deustuko Unibertsitatea [www.deusto.es]
- Mondragon Unibertsitatea [www.mondragon.edu]
- Eusko-ikaskuntza [www.eusko-ikaskuntza.org]
- UEU [www.ueu.org]
- Sortzen/ikasbatuaz [<http://www.sortzen-ikasbatuaz.org>]
- Center for Basque Studies, University of Nevada, Reno [www.basque.unr.edu]

– INTERNET ETA KOMUNIKAZIOA

- Euskal Herriko Telekomunikazio Ing. Elkargoa [www.aitpv.com]
- Euskadiko Informatikako Ing. Elkargo Ofiziala [www.coiie.org]
- Eitb [www.eitb.com]
- Internetikak [www.internetikak.info]
- ESLE, Euskadiko Software Libre Enpresen Elkartea [www.esle-elkartea.org]
- Argia [www.argia.com]
- Euskaltel Fundazioa [www.euskaltel.com]
- Elhuyar Fundazioa [www.elhuyar.org]
- Euskarazko Komunikazio Taldea [www.ektsa.net]

lido horretan, **epeen ziurgabetasuna** aipatzea ere ezinbestekoa zaigu. Ibilbide luze honen bihurguneak eta denborak ICANNek ezartzen ditu. Applicant Guidebook deritzan dokumentuaren behin betiko bertsioa ez da oraindik kaleratu, eta ezin da data zehatzik ziurtatu. Dokumentua kaleratzen den unean, 4 hilabete izango ditugu. **Ziurtatu ezin den arren, 2010eko martxoan eskaria aurkeztu ahal izango dugula aurreikusten dugu.** Baina ICANNen eskuetan dago eta, beraz, atzeratu daiteke.

.EUS domeinua 2010eko martxoan eskatzen badugu, urtebeteren buruan, ICANNen erabakiaren berri jakingo dugu. Baiezkoa bada, ICANNekin kontratua sinatu eta .EUS domeinua martxan jartzeko moduan izango gara, PuntuEus Fundazioaren gidaritzapean.

Baina ibilbide luzea da eta, aurrera goazen arren, poliki eta guztiok batera joatera behartuak gaude. Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitate osoa behar dugu bidelagun, hori delako .EUS domeinuaren esentzia. Mila esker.